

Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak eman nahi ditut, proiektu hau dela-ta. Eskerrak Bizkaiko ahaldun nagusiari eta Arantzazuko Frantziskotarren probintzia-buruari. Eskerrak ere Joan Mari Torrealdairi eta Jakin aldizkariaren taldeari, egiten ari diren lanagatik. Eta eskerrak Villasanteren lankide izan zareten guztioi.

Villasante guretzat ez da iragana, oraina da. Horregatik uste dugu haren lana ezagutarazi behar dugula.

Xede nagusia digitalizazioa da. Baina ez da lan bakarra, ezta gutxiago ere. Prozesu honen abiapuntua bibliografian bertan dago. Aurrena, Villasanteren lanen katalogoa eratu behar da zehatz eta mehatz; lanak lokalizatzea dator hurrena; eta dokumentuen eskuratzea dator gero.

Villasanteren lan argitaratuak ezaugarri propioak ditu bilketa zailtzeko orduan. Hiru aipatuko nituzke bereziki: testu masa handia; urte luzetan zehar idatzia; eta leku desberdinetan argitara emana.

-Asko idatzi du Villasantek, liburu ugari eta artikulak askoz gehiago. Dagoeneko gure bibliografian Villasanteren 40 bat liburu dauzkagu. Eta aldizkari zein liburutako lankidetzak 900 bat badira.

-Asko izateaz gainera toki askotan eman ditu argitara. *Aranzazu* eta *Euskera* aldizkarietan batez ere, baina hortik aparte beste 20 bat aldizkari diferentetan agertu dira bere lanak. Organo horietako batzuk txiki eta espezializatuak dira, ez ezagunak, beste batzuk desagertuak.

Liburuekin beste hainbeste gertatzen da: 30 bat leku ezberdinetan agertu dira bere liburuak; argitaletxe horietako batzuk desagertuak dira, eta libururik gehienak deskatalogatuta daude.

-Hirugarren ezaugarria zera da, urte luzetan zehar idatzi duela. Zehatzago hitz eginda, 1944an hasi eta 1999 artean publikatu zituen lanak, hau da, 55 urtetan! Lanen lokalizazioa ez du errazten horrek.

Lan luze eta handiaren kausaz, bilketak bere zailtasunak ditu, baina berebiziko garrantzia ere bai. Corpora eratzen denean balio gehigarria hartuko du Villasanteren lanak.

Esana dugu Villasante idazle ugaria dela: era guztietako lanak ditu, luzeak/laburrak (ez motzak), mamitsuak/koiunturalak, sakonak/arinak, toki askotan barreiatuak, zirkulaziotik kanpo asko. Eta, gainera, interesgune oso desberdinekoak: etnografia, historia, literatura, euskararen soziologia, gramatika, lexikoa, biografiak, teologia, espiritualitatea, mistika. Inor gutxik ezagutuko du Villasante bere osotasunean: espiritualitateaz interesatzen dena ez da euskaraz arduratzen; euskararen kezka duen hari bost axola mistika. Eta hola.

Berriz diogu: lanak oro batean jarrita, corpus narratiboa osatzen dutelarik, ez bakarrik beste dimentsio bat, baita ere beste zentzu bat hartuko du Villasanteren lanak.

Argitalpen formalak bakarrik ez, Villasanteren artxibategiko lanak ere bildu nahi ditugu.

Lehen begiratu batean dokumentu ugari aurkitu dugu bere artxibategian. Bi adieretako ugaritasuna du artxibategiak: material asko, eta mota askotakoak. Balioa neurtzeko goizegi da orain.

Materialen multzo ezberdinak egin ditzakegu: sermoiak, gogo-jardunak, gutunak, apunteak, txostenak, liburuen lanketak, “agendak”, argazkiak.

Lanaren tamaina. Aipatu bezala bi material mota nagusi tratatu behar dira: Villasanteren argitalpenak eta Villasanteren artxibategia.

Honen guzti honen tamaina ezin dugu zehaztu guztiz orain, bistan da. Hurbilketa ahalegin serio bat egin dugu, hori bai. Euskarriak eta testu motak bereizita, hona Villasanteren argitalpenen testu masa karakteretan neurtuta:

- aldizkarietan publikatua: 13.000.000 karaktere
- liburuetan publikatua: 21.000.000 karaktere
- liburuetako lankidetzan emana: 5.500.000 karaktere
- argitalpen berezitan emana (edizio kritiko, bilketa, itzulpen eta beste): 11.000.000 karaktere.
- Guztira, bada, Villasantek argitara eman duenak 50.000.000 karaktere inguru osatzen du. Paper euskarriko kalkulu konbentzionaletara ekarriz 23-25 bat mila orrialde izan daitezke Villasantek guztira publikatu dituenak.
- Artxibategia, bidezko denez, ez dugu karakteretan kalkulatu, alferrikako lana baita, orain-oraingoz baliozko materiala zenbatekoa izango den ez dakigu eta. Dagoeneko dakiguna da 20 bat kaxa badirela miatzeko. Horrezaz gainera beste artxibategi batzuk ere aztertu beharko ditugu Villasanteren arrastoen bila.

Aita Villasante euskararen prosaren aitzindaria izan da. Gaur aurkezten dugun ekimen honen bitartez, prosa hori guztion eskura jarriko dugu. Lankidetzan egingo dugu, eta lankidetz hitza, hain zuzen ere, berretsi nahi dut, hau ez baita izango hemen garen erakundeon artean egingo dugun azkeneko ekimena.

Bilbon, 2008ko azaroaren 25ean
Andres Urrutia, euskaltzainburua